

ZINEMA. Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza

75 milioi pezeta pelikulak euskaraz estreinatzeko

lazko laguntzari esker hamaika film estreinatuko dira euskaraz ekaina bitarte

Erredakzioa | IRUÑEA

Eusko Jaurlaritzak filmak euskaraz estreinatzen jarraitu ahal izateko 75 milioi pezetako diru laguntza (hiru milioi libera inguru) onartu zuen atzoko bileran. Laguntza horrek iaz abian jarritako ekimenari jarraipena ematen dio. Ekimen horren bidez, hamaika film estreinatuko dira euskaraz ekaina bitarte.

Diru laguntza berriaren helburua da euskarazko pelikulen komertzializazioa bultzatzea zinema aretoetan, eta, horrekin batera, bideo eta DVD euskarrian kaleratzea euskaraz bikoiztutako filmak.

Diru laguntza jaso ahal izateko beharrezkoa da euskarazko bertsioa gaztelaniazkoarekin batera estreinatzea gutxienez hiru aretotan. Banaketa errazteko, gainera, euskarazko bertsioaren lau kopia eginen dira gutxienez zirkuituan banatzeko. Gainera, banatzaileak euskarazko bertsioaren promozioa egiteko konpromisoa hartu beharko du laguntza jasotzeko.

Hamaika estreinaldi iazko laguntzari esker

Orain arte zazpi film estreinatu dira euskaraz Eusko Jaurlaritzak iaz *Zinema Euskaraz* ekimenaren baitan banatutako laguntzari esker. Haurrentzako pelikulak izan dira gehienak —*Banpiro Txikia* edo *Karrama-*

rroen uhartea, kasu— baina egon da helduentzako pelikularik ere. Aurrenekoa, Erresuma Batuko Ken Loach zuzendaria-*Ogia eta arrosak* izan da, oraintsu estreinatua. Barton Films etxeak banatu du filma euskaraz, Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker. Irusoin etxeak egin du bikoizketa lana.

Joan den ostiralean, berriz, Nick Gomezen *Guztiek nahi zuten hila* estreinatu zuten, Barton Films banatzailearen eskutik eta etxe berak banatu du Stephen Frearsen *Liam* ere, euskaraz. Bi pelikula horiek ere Irusoinetik bikoiztu ditu. Ekaina bitarte beste lau film luze estreinatuko dira euskaraz. Iazko laguntzei esker, halaber, ekainerako hamahiru bideo eta DVD izanen dira euskaraz.

Bestalde, sormen zinematografikoa bultzatzeko diru laguntza onartu zuen Eusko Jaurlaritzak ere atzoko bileran. 136 milioi pezetakoa izanen da helburu hori betetzeko aurrekontua (5.440.000 libera inguru).

Partida horren xedea da film laburrak egiteko laguntza ematea, bai eta zinema film luzeetako gidioak idazteko eta zinema zein telebistako film luzeak egiteko laguntza ematea ere. Iazko partidari esker hiru gidioik, zortzi film laburrek eta bost luzeak jaso zuten Eusko Jaurlaritzaren laguntza.

KRITIKA ANTZERKIA

Agus Perez

Mimoa eta musika, elkarren lagun

'Mozart'

Konpainia: London Mime Theatre. Lekua: Elorrioko Arriola aretoa. Data: Martxoak 9.

'Underground'

Konpainia: Markeliñe. Lekua: Zornotza aretoa. Data: Martxoak 19.

Egunotan, kasualitatez edo, musika eta mimoa ezin hobeto uztartzen dituzten bi lan programatu dira ia-ia aldi berean.

Haietariko lehenengoan London Mime Theatre konpainia ikusi dugu. Izen horrek, beharbada, ez dizue gauza askorik esango, baina askoz seguruagoa da Nola Rae ezagun izatea. Izan ere, Nolaren sona handia da mimoren alorrean, eta ohoretzat har daiteke bere piezaren bat ikusi izana. Horrexegatik, gogoratu beharra dago beste hiru aukeratan-edo egon dela Eibarko Antzerki Jardunaldietan, azkena 1994an, Bilbon eta Basaurin urte berean antzezteaz gain.

Orain ekarri duen *Mozart nahaspilaria* ikuskizun magikoa da, inondik ere. Magikoa izan behar du antzezle bakar batekin eta oso elementu gutxirekin haren bizitzaren pasarte esanguratsuenak birsortzeko eta ikusleen arreta uneoro bereganatzeko. Bestetik, jakina da Nolaren maisutasuna objektuen antzerkian, baina kasu honetan panpinek hartzen dute objektuek baino pisu gehiago, haien bitartez irudikatzen dituelako musikariaren aro ezberdinak.

Bestalde, Mozarten musika-pasarte ugariak entzuten ditugu lanean zehar, eta oso dibertigarriak dira, esaterako, musikarekin egindako txantxak, edota konpositoreak lau pieza aldi berean nola idazten zituen ikustea. Musika, beraz —eta ezinbestez— edonon entzuten dugu obra honetan, baina Nolak jakin izan du isiltasunerako



Markeliñe taldeko aktoreak *Underground* antzezlanean.

uneak gordetzen, ondotxo dakielako orduantxe hasten delako benetako magia, bere keinuen eta, batez ere, bere begiradaren poderioz, betiere bere erritmo geldoaz gozatzen jakinez gero. Hortaz, Elorrioko Arriola aretoan geundenok —gazteek zein nagusiek— txalo bero eta luzeekin eskertu genuen emanaldia.

Musikariak satorren bideetatik

Bilboko metro ponposoa estreinatu zenean Bermeoko nire lagun eta lankide batek haxe esan zidan: «Ni behintzat satorren bidetik ez naiz sekulan joango». Berarekin ados egon ala ez, metroko korridoetan aritzen dira Markeliñe taldekoek *Underground* lanean, Ekialdeko Europatik etorritako hiru musikariren planta egiten. Jantzi dotoreak daramatate eta musika politak jotzen dituzte, baina Europa aberatsean jendeak ez du beraiantzako astirik.

Markeliñek bere betiko estilo gizatiarrarekin ekin dio lana-

ri, egoera tragikoaren alde humanoa beste ezerekin gainetik nabarmenduz, eta benetako sakontasuna lortu du, istorioaren ustezko txikitasuna gaindituz. Bestalde, nik esango nuke inoiz baino landuagoak izan direla soinu-banda, dramaturgia eta gorputzekin sortutako ikuste-efektuak. Azken horien artean, bereziki mirestekoak dira eskailera mekanikoena eta haietariko jaka batekin sortutako panpinarena, baina, egia esan, obra ikuste-efektuz josita dago eta zein baino zein politagoak dira.

Amaitzeko, eta taldearen balizko estilo aldaketari dago-kionez, zera esango nieke Markeliñekoei: zabaldu eta jorratu duzuen bidean mundialak zarete, lagunok, azken sariek eta arrakastek frogatzen duten moduan. Datozen lanetarako, beraz, ez duzue zertan aldatu, sakondu baizik dramaturgiaren eta gorputz adierazkotasunaren bideetan, oraingo honetan egin duzuen moduan. Amen.

IRAGARKI MERKEAK

© 943 300 222

33 x 33 mm

33 x 33 mm

70 x 33 mm
2 MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 6.000
Astea (6 egun): 4.600
2 aste (12 egun): 4.200
Hilabetea (24 egun): 3.000

70 x 70
4 MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 12.000
Astea (6 egun): 9.200
2 aste (12 egun): 8.400
Hilabetea (24 egun): 6.000

33 x 33 mm
MODULO
(Iparraldea)

Eguna: 84 l.
Astea (6 egun): 73 l.
2 aste (12 egun): 61 l.
Hilabetea (24 egun): 46 l.

33 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)

Eguna: 2.200
Astea (6 egun): 1.900
2 aste (12 egun): 1.600
Hilabetea (24 egun): 1.200

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 3.000
Astea (6 egun): 2.300
2 aste (12 egun): 2.100
Hilabetea (24 egun): 1.500

GIPUZKOAKO



EUSKARA IRAKASLE
IZATEKO IKASTAROA
DONOSTIA

apirilaren 2tik
ekainaren 14ra bitarte
asteleheneetik ostegunera
16:00etatik 18:30ak arte
Informazioa eta
izen ematea:
943 32 71 72 telefono
zenbakian
Matrikula epea:
martxoaren 28a